

## Homilia urratsak, Ebanjelioaren ildotik

Garizumako 1. igandea

2010 Otsailak 21 (C urtea)

Patxi Otamendi

Deuteronomio 26, 4-10

Erromatarrei 10, 8-13

Lukas 4, 1-13

- Antzinako heroiak bezala Jesus “probatua” agertzen da. Basamortuan, gizakiok bizitzeko ez-lekuan. Lehen ere, ezaguna zuen basamortua: Jordan aldean izan baitzen bataiatua. Oraingoan Lukasek argi dio Espirituak eramaten zuela basamortura. Han izango dituen proben bitartez ebanjelioak sinbolikoki pertsonai bereizi gisa aurkezten dio irakurleari. Kontakizuna xehetasun bereziz hornitua dago, jaiotzarenak bezala. Jesusen aurkezpena denez, hiru ebanjelio sinoptikoek ematen dute basamortuko tentaldien berri. Lukasen kontakizuna eta Mateorenarena nahiko antzekoak dira. Ez, ordea, Markosena; honena oso laburra baita.
- Israelgo historian basamortuan biltzen ziren aldaketa edo iraultza prestatu nahi zuten taldeak: Egiptotik irtendakoak, Esenioak, Joan Bataiatzaileak. Basamortua prestatze lekua zen, egoera berria etortzearen itzarote-lekua.
- Tentolari bezala azaltzen den deabruak zera aipatzen dio Jesusi: “Jainkoaren Seme bazara...”. Honelako titulua Jordango bataioan zeruko ahotsak esandako berbera da. Zeren bila zebilen tentatzailea? Ba, ziur aski argitu nahi zuen zer motako “Jainkoaren Seme” izateko asmoa zuen Jesusek. Antzinako kulturetan seme batek aitaren nortasuna azaltzen eta jarraitzen zuen. Itun Zaharreko judutar tradizioan erregeek zuten Jainko Seme titulua, suposatzen zelako Jainkoaren nahia jarraitzen ordezkari onenak zirela. Baina era berean erregeei boterea eskura ematen zitzaaien. Horregatik Jesusek basamortuan garaitzen dituen probak boterearen erabilera buruzkoak ere badira.
- Gizaki orok bizi du beragan tentaldia. Esperientzia unibertuala da. Eta ez besterik gabe zerbait txarra, aukera-aldia ere izaten delako. Beste batek probatzen gaituenean geure neurria ager dezagun izan daiteke (azterketetako probak), eta ez halabeharrez gaizkira joateko bultzada. Ebanjelioetan ageri zaizkigun tentaldiak bataioarekin lotuta daude, bai idatz lerroan zein esanahian. Jordanen hartutako bideari leial izango ote zitzaion zen tentaldien erronka. Alegia, bataioko dei-bokazioa beste edozer balioen gainetik biziko ote zuen. Jesus bezala, edota Abraham ala Israel herria basamortuan bezala, garai guztietako jarraitzaileek ere probatuak izango gara. Proba berdintsua izango da: jaso dugun bokazioarekiko leialtasunean jarraitzeko gai ote garen. Edozein une edo girotan izan gaitetzke probatuak. Ez da, ez, erraza bataioaren arabera arduratsu bizitzea. Ildo horretan kontsolagarria da Itun Berriko pasarte batzuk baieztatzea guk huts egiten badugu ere, Jainkoak ez gaituela utziko (Erromatarrei 3:3-4; 2 Timoteori 2:13).

Mateok bere ebanjelioan mendi goiari ematen dio garrantzia: hortik zabaldu ziren Zorion Deiak, eta bera ebanjelari bakarra da esaten Tentaldiak mendi goi batean izan zirela. Lukasek, aldiz, Jerusalemgo Tenplua azpimarratzen du: hara eramaten dute Jesus haurra, han dabil hamabi urte dituenean. Orain Tentaldien puntu gorena bezala Tenpluko dorretik bere burua botatzearen proba da. Zergatik? Judutarren itxaropenak Tenpluan jarrita zeudelako. Handik uste zuten etorriko zitzaizela Jainkoaren onespina. Tenpluari ematen dion balioaz argitzen du Jesusek bera nor den eta *nor ez den*. Bera askatzaile izango da. Baina askatzaile berezia. Ez ditu ekintza ikusgarriak egingo, greziar kulturako heroiak (jainkoen seme izanik) bezala. Bestelako aldaketa isila eta sakona bultzatu nahi du. Bere mesiastasuna ez da juduek itxaroten zuten botere erakustaldia.